



Iruñeko Planetarioa Yamaguchi parketik ikusita pasa den udaberrian.

EDUARDO BUXENS

Naturzale eta ingurumen ikerlari euskaldunak Iruñean bilduko dira

NZ4T, Natur Zientzien IV. Topaketa azaroan antolatu dute Iruñeko Planetarioan

EuskalNatura elkarte eta UEU antolatuta, 'Aldaketa globala Euskal Herrian' izango da aurtengo gai nagusia

DN Iruñea

Iruñeko Planetarioan antolatu dute aurten NZ4T Natur Zientzien IV. Topaketa, azaroaren 7an eta 8an, hain zuzen ere. Topaketa hauek Euskal Herrian naturaren inguruan lanean dabilen jendearen eta naturzaleen elkargune

izateko jaio ziren eta bere aurreko edizioek —2013 (NZTOPA!), 2015 (NZ2TOPA!) eta 2018an (NZ3T)— alorreko kide asko erakarri zituzten.

Aurreko edizio horien arrakastak hauspotuta, ilusioz dabilta EuskalNatura elkarteko eta UEUko kideak Natur Zientzien IV. Topaketaren antolaketan. Aldi honetan, aldaketa globala Euskal Herrian non eta nola hezurramitzen den ezagutarazi nahi dute. Izan ere, tokiko ingurumen arazoak isilpean geratzen dira maiz, klima larrialdiari lotutako mezuen artean estalita.

Topaketa bera, Euskal Herriko naturzaleen, natura elkarten eta ikerlarien topagune izan ohi da, eta komunitatea saretzeko helburuan berretsi dira antolatzailerak. Zientzia euskaraz dibulgatu nahi dute, baita tokiko

proiektuak nazio mailan erakutsi ere. Horretarako, egoitzaz aldatu, eta Iruñeko planetarioa izango dute aterpe azaroaren 7an eta 8an.

Edukiak haien artean josteko aitzakia, berriz, aldaketa globalan arreta jartzea, berritzaile samarra da, nekez lotu nahi izaten baititugu gure bizimodua eta hark ingurunean eragindako eraldaketak. Dena den, ezinbesteko ariketa da hemen eta orain zenbait erronkari ganoraz heldu ahal izateko. Formatu ugari erabiliko da hitzaldietan, baina guztiek izango dute komunean aurrez aipatutako ikuspegia. Gehiegi luzatu gabe, hauexek landuko dituzte gonbidatuak: lurzoruen erabilera aldaketak, dibertsitate genetikoaren galarak, elikadura burujabetza, ingurumen hezkuntzan aldaketa glo-

bala txertatzearen onurak, komunikabideetan ingurumen arazok nolako oihartzuna duten...

Poster saioak ere izanen du topaketan tokia. Irekita dago laburpenak bidaltzeko epea, eta urriaren 28a bitarte jasoko dituzte proposamenak. Saio irekia dute, malgua, eta guztion ekarpenekin euskal ikerlarien aurkituzten, elkarten lanen eta tokiko ingurumen arazoan bozgorailu bikaina izanen dela espero dute antolatzaileek.

Euskal Herriko naturzaleak gonbidatu dituzte UEUren webgunetik topaketa izena ematera, are gehiago, matrikula doan izanda. Informazio guztia www.nztopaketa.eus?weborrian dago eskuragarri. Poster saioaren txokoan, www.nztopaketa.eus/posterrak? topa daiteke informazioa.

